



258. zenbakia

• Urtarrila 2026 •

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



Apurkinak (Pamiela, 2025)
Oihane Zuberoa Garmendia

Eskua *inurritzen* zaigula esaten dugu euskaldunok. Uste dut tradizioari jarraitu beharko geniokeela, eta esan sudurra *erletu* egiten dela alergiak jota dagoenean; tripak *sugetu* zorabiatzen garenean; eztarria *txakurtu* karkaxaz betetzen denean; begiak *arraindu* ur gazia sartzen zaigunean, edo tipula xuritzean, edo negar egitean; hankak *matxinsaltatu* korrika egitera ateratzen garenean...



Hautatu



komunikazioa

3 hedabide

Komunitate
Helburu
Proiektu
Hizkuntza
Eskualde

bera



pulunpe



ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok Bat Elkarte, Ernesto Leitz, Lourdes Iraizotz, Ametza Kultur Elkarte eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez.

TIRADA

1.700 ale.

INPRIMATEGIA

Gertu.

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa.

AZALEKO ARGAZKIA

Maridomingi selfie-a egiten, Erason. Argazkiaren egilea: Aritz Gorostiaga.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira urtarilaren 7an bidalia.

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *I. Podcast lehiaketa*

08

Kronika. *Denok Bat jubilatuen elkarte*

10

Albisteak.

14

Elkarriketa. *Sustraiak Guraso Elkarte*

16

Ekimenak. *Eskualdeko musikariak*



20

Elkarriketa. *Antzerkia*

22

Aspaldiko kontuak. *Don Emilio Linzoain Linzoain*

25

Ardo freskoa. *Pintadak*

26

Zer ikusi. *amezti.eus-en*

28

Kirola. *Pablo Aldaz*

30

Ekimenak. *Lanzko ihotzak marraztu*

32

Zer irakurri. *Ultzamako liburutegia*

34

Jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak. *Azaroa*



Euskarazko

Irratigintza sustatzen

Ultzamaldeko Gazteendako I. Podcast lehiaketak baditu irabazleak

Ultzamaldeko Euskara Mankomunitateak, Ametza Kultura Elkarteak eta Esan Erran Irratiak Gazteendako I. Podcast lehiaketa antolatu dute elkarlanean. 12 eta 30 urte bitarteko Ultzamaldeko gazteek izan dute parte hartzeko aukera, eta 14 grabaketa aurkeztu dira. Horien artean hiru sarituak izan dira eta hemen dituzue irabazleak

400 euro lanik onenarendako, beste hainbeste lanik originalarendako, eta grabaketak egiteko kit-a teknikoki onena izan den lanarendako. Horiek izan dira banatutako sariak. Orri hauetan, txapeldunak eta haien lan bikainak ezagutzera eman nahi ditugu.



1. Lanik originalena: *Bizitzeko? Musika!*

Itziar eta Imanol Olagüe Barbere-na lizasoarrek irabazi dute. 25 eta 27 urtekoak, biak musikariak dira, eta hainbat gairen artean zalantza izan bazuten ere, azkenean, gehien menperatzen dutenari buruz aritu dira podcast honetan. Musikaren historia eta teknikaren inguruko datu kuriosoak aipatzeaz gain, hausnarketak eta galdera bereziei erantzunak emateko aprobetxatu dute, oso era originalean.

Lanik originalenaren saria lortu du-zue, espero zenuten?

Kristoren ilusioa egiten digu. Egia da oso pozik gelditu ginela emaitzare-kin. Aldi berean ez genekien zenba-tek emanen zuten izena eta badakigu zonalde honetan, batzuetan, jendea ez dela gehiegi mugitzen, adibidez, lehiaketarekin batera antolatu zen ikastaroa bertan behera gelditu behar izan zelako. Espero ez, baina itxaro-penik ere bagenuen.

***Bizitzeko? musika!* Da podcastaren izena. Oraindik entzun ez duenaren-dako, nola deskribatuko zenukete?**

Musikaren inguruko hausnarketa bat baina modu originalean edo era ezberdinean egin nahi genuen, jolas gisa. Musikaren inguruko galderak idatzi genituen papertxo batzuetan eta bion artean papera atera eta ho-riek erantzun behar genituen. Gero, erantzunarekin batera abestiaren zati bat jartzen genuen. Gure egunero-kotasunean musikak zer leku duen hausnartzea zen gure helburua. Adi-bidez, galderetako bat zen “Zer abesti nahiko zenuke mundu guztiak aldi berean entzutea?”. Erantzunekin ba-tera pasadizoak kontatzen genituen. Umore ukitu bat ere badu.

Musika da protagonista nagusia bai-na aukera ematen du beste gauza batzuei buruz hitz egiteko, bizitza-ren inguruan, gizartearen inguruan. Nola bururatu zitzaizuen ideia?

Biok musikariak gara eta guretzat musikaren inguruan hitz egitea zen errazena. Gazteen inguruan ere hitz egitea bururatu zitzaigun, baina hori ur handitan sartzea zen eta nahiago izan genuen hobeki kontrolatzen ge-nuen gai bati buruz aritzea. Elkarriz-

keta formatuan egitea ere pentsatu genuen, gure bizitza musikalaren inguruan hitz egiteko. Baina zerbait originalagoa egiteko galderen bitartez egitea pentsatu genuen eta entzuleek ere etxean entzun eta erantzun ahal izateko. Gero, azkeneko zatian, jolas txiki bat ere egin genuen, entzuleari ere jolasteko aukera ematen ziona. Galdera batzuk ere gelditu ziren ira-kurri gabe, hori, beraz, beste baterako akaso.

Zuk biola jotzen duzu, ezta? Orain Amelirekin ipuin kontaketa musi-katuetan.

Bai. Biola ikasketak egin nituen eta anaiak pianoa ikasi zuen baina es-kutan jartzen diozun edozein tresna jotzen du (irriak). Oso-oso pozik nago proiektu horretan. Udan hasi nintzen lehenengo ipuin musikatuetan. Amaia Elizagoien da proiektu honen burua eta Euskal Herria osoan zehar ari gara. Oso lan polita izaten ari da eta niretzako sekulako deskubrimendua.

Imanol ere lanaz gainezka, Skabi-dean musika taldearekin, bereziki?

Itziar Olagueri
egindako
elkarriketa eta
Bizitzeko Musika
podcasta entzuteko





Bai, proiektuz gainezka gaude. Esan bezala berak pianoa egin zuen musika eskolan eta hortik aurrera, duela hamar urte inguru, Skabidean musika taldekoekin hasi zen. Orain Durango-ko azokan izan dira azkeneko diska aurkezten: *Herri Kuttuna*. Diska ederra osatu dute. Japoniara doaz martxoan! Bira egingen dute Japonian zehar.

Larraitzarko ikastetxean ikasi zenuen, Txutxumutxu irratan arituzineten?

Oso oroitzapen politak ditut Txutxumutxu irratan eta, gainera, oso berezia eta kategoriakoa iruditzen zait irrati bat eskolan izatea. Pozten naiz berriro martxan jarri behar badute.



▲ Itziar eta Imanol Olague Barberena. Lanik originalenaren saria jaso dute



2. Lanik onena: Euskal Literatura Podcasta


Larraitzarko 4.DBHko ikasleak diren Nerea Larraitzar Pikabea (Eltsu, Ultzama), Arhane Etxenike Etxeberria (Burutain, Anue) eta Oihana Rezabal Larrañeta (Gaskue, Odieta) lanik onenaren irabazleak izan dira, gidoia bereziki landua eta teknikoki ere oso ongi osatua zegoelako. Euskara klasean Ainara Urritza irakasleare-

kin landutako euskal literaturaren inguruko informazioa baliatu eta irratia batean ederki bildu dute. Epaimahaiak nabarmendu duenez, testuinguru historikoak are erakargarriagoa egiten du informazioa, ahots bidezko transmisiorako ongi egokitu dute eta lokuzioaren bitartez entzulearen interesa bizirik mantentzen du.


Zorionak, neskak? Espero al zenuen?

Oihana: Ez genuen batere espero. Gure klasekoek ere lan oso politak egin dituzte. Krisi uneak ere izan genituen oso denbora gutxi izan genuelako. Egun gutxi genituen eta klasean jo ta ke aritu ginen. Guk podcasta alaia

Lanik onenaren sariaren irabazleei egindako elkarrizketa eta podcasta, urtarrilaren 8ko Egun Ero irratisaioan



▲ Nerea Larraitzar Pikabea



▲ Arhane Etxenike Etxeberria



▲ Oihana Rezabal Larrañeta



izatea nahi genuen, pisutsua izan ez zedin eta ez genuen informazioa adreilu gisara erran nahi. Horregatik elkarrikketa moduan antolatu genuen.

Nerea: Sorpresa handia izan da. Lan handia hartu genuen klasean, informazioa biltzeko. Oihanak esan duen bezala modu dibertigarrian kontatu nahi genuen.

Arhane: Nik ez nuen espero, ez. Denok egin dugu lan handia. Gure kasuan Lauaxeta eta Oihana Loiolari buruzko informazioa bildu genuen eta klasean aurkezpen bat egin genuen. Gero podcasta egitea proposatu ziguten. Orduan gidoia egin genuen eta gero grabatu genuen.

Lana gustatu al zaizue?

Oihana: Testuingurua biltzea aspergarriagoa egin zitzaigun baina, niri behintzat, podcasta egitea asko gustatu zitzaidan. Oso dibertigarria iruditu zait eta ikasteko modu oso polita. Presaka ibili ginenez tarteka itogarria ere izan da baina niri gustatu zait.

Nerea: Grabatzea asko gustatu zait, oso dibertigarria iruditu zitzaidan, baina informazioa bilatzea, ez (irriak).

Arhane: Hasieran egiten ohi ditugun beste proiektuetako bat izan zen, informazioa bilatu, aurkeztu... baina gero podcasta egitea proposatu zigutenean eta lehiaketara aurkezteko ilusio handiagoarekin hartu nuen. Irabazteko aukerak genituen eta azkenean irabazi dugu!

Diruarekin zer egin behar duzue?

Oihana: Aurreztu... edo udan gastatu (irriak).

Arhane: Nik ikas-bidaiarako gorde.

Nerea: Bai, bai, dena gorde.

Txutxumutxu irratiaren grabatu duzue, zer iruditzen zaizue eskolan irrati bat izatea?

Oihana: Oso ideia ona iruditzen zait. Orain berriz da martxan eta aukera ederra da guztiontzat. Proiektuak egiteko aukera politak zabaltzen dizkigu. Ikasteko beste modu bat da eta oso interesgarria.

Nerea: Ikasleok irrati nola egiten den ikasi dezakegu eta ikusi gustatzen zaigun edo ez.

Arhane: Ez dakit beste eskoletan izanen duten baina irrati bat izatea, eskolan grabatzeko aukerarekin, ideia

oso-oso ona da. Gauza berriak ikasi ditzakegu eta baita edizioa ere.

Eta, lan honetan onak zaretela ematen du, gustatuko litzaizueke podcast gehiago egitea? Eta Esan Erranen aritzea?

Oihana: Niri asko gustatuko litzaidake, batez ere, eskolan, ikasteko oso modu dibertigarria iruditzen zait, askoz ere erakargarriagoa eta parte hartzaileagoa. Esan Erranen eskolan egin zen azkeneko irratsaioan parte hartu nuen eta asko gustatu zitzaidan, nahiz eta urduri jartzen naizen. Gehiagotan parte hartzea gustatuko litzaidake aukera ematen badidate.

Nerea: Podcastak egitea dibertigarriagoa da eta gehiago ikasten dugu. Baina niri gehiago egitea ez litzaidake gehiegi gustatuko oso urduria naizelako eta lotsatzen naizelako. Baina asko gustatu zait parte hartzea eta probatzea, eta urduritasun hori kentzea.

Arhane: Podcastak egitearen oso jarraitzailea ez naiz (irriak) baina esperientzia berri bat da eta zerbait berria ikasten duzu. Ni ez nintzateke Esan Erranera joango baina iritzia aldatu dezaket! (irriak).



3. Teknikoki lanik onena: Bernart Etxepareren eta Alaine Agirreren podcasta

Ekhine Ansonera Astiz, Enara Alberdi Duhart eta Ara Lobato Irigoien dira hirugarren saria eskuratu dutenak. Hauek ere Larraintzarko ikastetxeko 4.DBHko ikasleak ditugu eta Euskara klaseko literaturaren in-

guruko edukia hartu dute irratsaioa osatzeko. Teknikoki hobekien egin dutenak dira, musikaren erabilera nabarmendu du epaimahaiak eta horregatik Podcastak egiteko kit berri bat jaso dute.



Yo no me escondo. Soy transparente.

La hostelería, comprometida con la separación de residuos.



Asador Mediavilla
Sangüesa / Zangoza



Bar Mekness
Lumbier / Ilunberri



Casa Vidaurre
Olite / Erriberri



Hostal Betelu
Betelu



Asador Zubiondo
Lesaka



Asador Mosaico
Villafranca



Rest. Baratz
Aurizberri / Espinal



Bar Frontón Toki Eder
Aoiz / Agoitz



Rest. Izar Ondo
Arbizu



Asador El Cerco
Artajona / Artaxoa



Aurtziko Ostatur
Ituren



Bar Piscinas
Milagro



Errekalde Ostatur
Bera



Rest. Kirol
Ayegui / Aiegi



Bar Sobrino
Elizondo



Bar La Placeta
Tafalla



Rest. Ibarraetxea
Garaioa



Venta de Larrión
Larrión



Bar Zortziko
Leitza



Balneario Elgorriaga
Elgorriaga



Casa Martija
Puente la Reina / Gares



Camping Arbizu
Arbizu



Lekunberri Taberna
Lekunberri



Rest. Santxotena
Elizondo



Rest. Beti Jai
Aoiz / Agoitz

Ez naiz ezkutatzen. Gardena naiz.

Ostalaritza, hondakinen bereizketarekin konprometituta.

Urteko azken ekimenak, 2025ari agur esan baino lehen

Abenduan urte amaierako festa ospatu genuen Auzan, urtean hildakoen omenezko meza egin genuen eta ondoren Almandozko Beola jatetxean bazkaria eta dantza saioa izan genituen. Giro ezin hobean agurtu dugu 2025. urtea

Beste festetan bezala, elizan lehen-dakariak hildakoen izenak eta herriak irakurri ondoren haien aldeko meza ospatu genuen. Ondoren, amaitzen ari zen urteko ekintzen errepasoa egin genuen, horrela bukatu genuen elizeko ekitaldia. Segidan, autobusak hartu genituen bazkaltzera joateko.

Bazkaria Beola jatetxean izan genuen, beti bezala lehenengo solairuan. Egun hauetan eskualdeko udaletako ordezkariak etortzen zaizkigu gonbidatu gisa eta denak ekartzen dizkigute opariak, bazkari bukaeran zozketatzeko. Gero, dantza saioa izaten dugu, urteari bukaera festa giroan ematea beharrezko iruditzen baitzaigu. Herriko festetan bagina bezala, hemengo dantzak eta oporretan ikasitakoak ere dantzatu ziren.

Izan ziren mikroa hartu eta beren kantak eskaini zizkigutenak ere. Arratsalde bikaina pasa ondoren etxera itzuli ginen, egun dotorea bota izanaren sentazioarekin.

Abenduko paseoan Lanzko Burdindogirako bidea egin genuen. Azken aldietan bezala, bi ibilbide genituen aukeran: batzuk Burdindogiraino igo ziren hango ikuskizunaz gozatzeko, eta beste taldeak Lanzko inguruan egin zuen bere ibilbidea. Gero, bi taldeak elkartu ziren Lanzko ostatuan elkarrekin bazkaltzeko.



Saritueta bat bere saria jasotzerakoan



Bazkarian, "topa" kantatuz



Bazkal ondorengo dantza saioan ▲



Hilabete honetan Batzar orokorra izanen dugu, 2025ko kontuak eta 2026ko egin nahiak izanen dira gaiak. Paseoak, bat lgoan eta beste Jauntsarats-Gartzarongo inguruetan izanen dira. Datorren alean izanen duzue hauen berri. Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.



Denok Bat
Jubilatu Elkartea



Zorionak Ortzi!



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com

Zorionak Zorionak !

Zorionak Auriti!



Zorionak Unax!



Dermatosi Nodular Kutsakorrenaren kontra behiak txertatzen hasi dira Nafarroan

Frantzian hainbat foku berri agertu ziren, horietako bat Nafarroatik 80 kilometrora. Horregatik, Foru Gobernuak Nafarroan zenbatuta dauden 120.000 behiak txertatzeko baimena eta txertoak eskatu zituen. Baina, azkenean, Nafarroa Garaiko iparraldean bakarrik txertatzeko baimena eman du Europak. Urtarrilaren 7an hasi da txertaketa kanpainia.

Horrela, gutxi gorabehera Nafarroan dauden behi guztien erdia txertatuko da, Nafarroa Garaiko iparraldekoak bakarrik, nahiz eta gobernuak erkidego osoan txertatu nahi zituen. Kanpainia iparraldetik hegoaldera osatzen ari da eta otsailaren 28ra arte dute txertatzeko epea. Osotara, 60.000 buru babestuko dira, Nafarroan zenbatzen direnen erdia, Lizarra aldeko hainbat herritaraino,

Ultzamaldea osoa barne. Txertoak Espainiako Ministerioak ordainduko ditu baina txertaketa Nafarroako Gobernuak ordaindu beharko du: 240.000 euro.

Txertoa jarri eta hilabete pasa ondoren, kasuren bat agertuz gero, kutsatutako behia bakarrik hil beharko litzateke, eta, ez, orain bezala, kasu bakar batekin ere ikuiluan dauden behi guztiak. Horregatik, honera zabalduko den beldur, Nafarroako Gobernuak erkidegoko 120.000 behiak txertatzea eskatu zion Espainiako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari. Honek, aldi berean Bruselari, Europako Batzordeari, eskatu behar zion baimena. Azkenean, esan bezala, eta Mariñelarenak zuen susmoa baieztatuz, eskatutakoaren erdia txertatzeko baimena eman dute.



Zuzenketa bat

Aurreko Pulunpen, 257. alean, 4. orrialdeko erreportajea, gaurko gaian, akatsa egin genuen eta zuzendu nahi dugu. Nabarmendutako aipu batean haxe jarri genuen: "Euskaldunen %83 erdaraz errazago aritzen da". Bada, hori ez da zuzena eta haxe da esan nahi genuena: **"Euskal herritarren %83 erdaraz errazago aritzen da"**.





Miguel Arano gudaria omendu dute Aizarotzen

Ehun lagun baino gehiago bildu dira EAJren Itxarkundia batailoian faxismoaren kontra borrokatu zuen Aizarozko gudaria omentzeko. Legutioko batailan pairatutako zaurien ondorioz hil zen Zornotzako ospitalean, 1936ko abenduaren 22an.

Abenduaren 26an, ostiralarekin, 12:30ean, omenaldia egin diote Basaburuko Ahaztuak eta Aizarozko Kontzejuak, ehun herritar baino gehiagorekin eta Aranoren familiarekin batera. Olaondo karrikako lorategian bere omenean jarri duten oroitarri bat inauguratu dute: "Omenaldi hau ez da oroimena bakarrik, esker ona ere bada garai hauetan, non ahanzturak zelatatu eta bere izenak ezabatu nahi izan zituen isiltasun frankistak jarraitzen duen. Ahotsa altxatzen dugu bere oroimena hil ez dadin eta bere izenak bizirik jarrai dezan gure artean, erresistentziaren eta itxaropenaren sinbolo gisa".

Oihana Fernandez Iturri abeslariak eta Eneko Iurramendi Aleman Aizarozko alkateak eta Mexikortxo Bandedeko kideak Miguel Aranori kanta bat eskaini diote.

Gainera, Mintxo Astiz bertsolari imoztarrak bertso bat ere idatzi dio:

*Miguel Arano omenduz
Aizarozko Errotarena
Basaburua utzita,
beharrek agintzen zuena
Gipuzkoa aldera lanera
hartu zuen bide zuzena
bertan zegoen lanean
orduan lehertu zuen dena
faxisten kontrako gerran
erakutsi zuen kemena
Gaur goraipatzera gatoz
bere izana eta izena*

*Bala batek hil zuen
ta sortuz malkotan negarra
etsaiek ez zuten uzten
pakean bere ondarra
Baina gaur lore artetik
iristen da bere oharra
esanez borroka dela
dugun erantzun bakarra,
garai honetan faxistek
berriz dutela oldarra
zure ereduak Migel
ez du galduko indarra (bis)*

Miguel Arano Arribillaga (1898-1936)

Miguel Arano Arribillaga gudariak 38 urte zituen faxismoaren aurka borro-

katzen hil zenean. Legutioko batailan larri zauritu zen eta Zornotzako Odol Ospitalean hil zen, zaurien ondorioz. 1936ko abenduaren 22a zen, esan bezala, eta EAJren Itxarkundia batailoioak kidea zen orduan.

Orduan, Gernikako Zallo hilerrian lurperatu zuten, beste gudari batzuekin batera. 1937ko maiatzean faxistek hartu zuten Gernika, baina ez orduan, ezta gerra bukatu zenean ere, 1939an, ez zituzten gudarien gorpuak ukitu. 1947an, ordea, Vicente Rojo alkate frankistak gorpuak hilerritik atera eta zakarrontzira botatzea agindu zuen. Julian Lezarraga hilerriko langileak ez zuen agindua bete eta isilean hezurak hilerriko lorategi txiki batean lurperatu zituen.

Miguel Arano Arribillaga Aizarotzen jaio zen 1898an. Aita José Arano Mariezcurrrena zuen, errotaria, Beuntzako semea (Atetz); eta, ama, Policarpia Arribillaga Goyenaga, Aresoko alaba.

Concha Lizaso Urkinekin ezkondata zegoen eta 4 seme-alaba zituzten: Maria, Lorenzo, Ramon eta Francisco. Hurrenez hurren, 10 urte, 6 urte, 4 urte eta 20 hilabe besterik ez zituzten aita hil zietenean.





Amaitu da Basaburuko eta Imozko pilota goxoko txapelketa

Hiru mailatan jokutzen da Basaburuko eta Imozko Kirol Batzordeak antolatzen duen txapelketa eta osotara 28 bikote aritu dira: Lehenengo mailan, zortzi; bigarren mailan, 12; eta, hirugarren mailan, beste zortzi. Urriaren 24an hasi zen eta abenduaren 12an, amaitu.

Perez eta Iturralde gailendu ziren hirugarren mailan; Apezetxe eta Oltzaren kontra, 22 eta 11; Marin eta Baleztena, bigarren mailan, Villanueva eta Irañeta-ren kontra, 22 eta 13; eta, lehenengo mailan, Irurita eta Aizpurua, Arbilla eta Garciaren kontra, 22 eta 13.

Arratsaldeko 18:00etan hasi ziren finalak, hirugarren mailakoa lehenengo; eta, ondoren, bigarren mailakoa eta lehenengo mailakoa izan ziren.



Urte berriarekin, euskara ikasteari ekin

AEKk hainbat talde ditu, maila askotarikoak, eskualdean: hiru Larraintzarren (Ultzama) eta bat Etulainen (Anue). Hasiera mailatik hasita C1 mailara artekoak dira eta, beraz, zero-tik hasi nahi baduzu, zure maila hobetu edo C1a prestatu, aukera zabala dago euskara ikasi eta hobetzeko. Gogoratu, gainera, diruz lagunduta dauden ikastaroak direla eta kasu batzuetan matrikula osorik jaso daitekeela. Izena telefonoz edo emailaz eman daiteke, kartelean agertzen diren zenbakian eta helbidean.

Bestetik, Mintzakide programa ere martxan jarraitzen du. Eremu informaletan euskaraz aritzeko taldeak dira eta hiru ditugu gurean, momentuz: Jauntsaratsen, Iraizotzen eta Larraintzarren. Dena den, talde berriak sortzeko aukera dago, jendeari ongi datorkion tokian eta orduan, eta Mintzakide taldeak online egiteko aukera ere badago. Interesa dutenek **praktikatu.eus** webgunean sartu eta bertan eman dezake izena, edo Ultzama-Larraungo AEK euskaltegira deitzea da beste aukera, 607 622 102 da telefono zenbakia. Doakoa da Mintzakide proiektuan parte hartzea, eta kideek abantaila batzuk ere eskura ditzakete: emanaldietarako txartelak, zozketak, deskontuak... eta, horrez gain, Euskal Herri mailako nahiz bailaran bertan antolatzen diren ekintza berezietan ere parte hartu dezakete. Bukatzeko, hitanoz hitz egiteko Mintzakide talde bat ere sortu nahi dute eskualdean, baina momentuz, taldea sortzeko jende bila ari dira.

aeK euskara praktikoa
Euskara eroso ikasi eta bizi

Ultzamaldeko euskara taldeak 2025-26
Grupos de euskera en Ultzamaldea 2025-26

LARRAINTZARREN:

- A0-A1: astelehen eta ostegunetan / lunes y jueves (16:00-18:30)
- B1: astelehen eta asteazkenetan / lunes y miércoles (17:30-20:00)
- B2-C1: Azterketa taldea. Asteazkenetan. Bi astetik behin. 17:00etatik 19:30era

ETULAINEN:

- A1: Astearte eta asteazkenetan / martes y miércoles (18:00-20:30)

Izena emateko: 688 87 43 03 / mattin-k@aeK.eus
Dirulaguntzaz babestutako ikastaroak/Todos los cursos subvencionados

Eman izena Ma t r i c i l a t e

www.aek.eus • 473 200 100 • 944 844 000



Chivite ez da gure tribuaren laguna

Nafarroako Lehendakari María Chivite elkarrizketatu dute "Tribuaren berbak" saioan. Gezurra esanez hasi da: *"El euskera estará donde quieran los navarros y navarras, pero basado en la voluntad... Cualquier navarro/a podrá estudiar en euskera, en cualquier lugar de Navarra"*, Nafarroako Erriberan ez baitago edonon euskaraz ikasteko aukera, eta Chiviteren gobernuak trabak besterik ez baitizkie jartzen euskaraz ikasi nahi dutenei, Gimeno sailburua zigor. Bestalde, Lanbide Heziketako edota Unibertsitateko euskarazko eskaintza lerro banatan jaso daiteke. *"Euskarazko hedabideen diskriminazio positiboa sustatzen dugu... kultur ekitaldiak... Euskarari ikusgarritasuna eman..."* jarraitu du, baina Nafar Gobernuak bultzatutako euskararen sustapen mugatua GBaren esku dagoen sailaren eskutik dator. PSNrengatik balitz zerokomazeroa litzateke euskararen sustapenari emandakoa. *"Euskara despolitizatzea izan da legegintzaldi honetako lorpenik handienetako bat"* esatera ere ausartu da. Gezurra da. Euskararen politizazio maltzurra da pairatu duguna: gure hizkuntz eskubideen izoztea eta murrizte orokorra hain zuzen, "politizazioa" hizkuntz eskubide berdintasuna aldarrikatzen dugunoi leporatuz, aldi berean. **Hizkuntza eskubideak bermatutzat jotzen ditu Chivitek** *"baita Nafarroako erakundeen aldetik ere"*. Ez da egia, baina. Nafarroako erakunde publikoen gutxiengo batek bermatzen du euskarazko arreta. Are gehiago, eremu edo erreserba "euskaldunean" ere ez dira gure hizkuntza eskubideak guztiz bermatzen. Bere hitzetan *"Euskararen Legeak euskararen erabilera sustatzen du (gezurra), eta euskarak Nafarroan aurrera egitea bermatzen (gezurra), beti borondatea eta errealitate soziolinguistikoa oinarri hartuta (zonifikazioa, alegia)"*. Euskara batuan esanda, euskararen erabilera sustatzen da erreserba "euskaldunean", eremu "mistoan"

ezer gutxi, eta "ez euskaldunean" ezertxo ere ez, zero. Bukaerakoa ere ez da makala izan: *"Euskara gure nortasunaren eta gure ondare kulturalaren parte da... eta erakundeen jarrera, erabilera, ikaskuntza eta hedatzea izango da, eta uste dut horrela euskarak aurrera egingo duela elkarbizitzatik"*... Ausardia behar da. Izan ere, PSNren gobernuak museoko ondare nahi du euskara, apalategi batean, eta gehienez ere, erreserba "euskaldunean" kuxkurtuta. Eta elkarbizitza ere berdintsu ulertzen dute: euskaraz erreserban, onenean. Handik kanpora kakarik ez eman.

Chiviteri ahaztu zaio, UPNk ezarritako PAI eredia go-tortu eta hedatu duela PSNk euskarazko ikaskuntzaren kaltetan, Erriberan D eredia heda ez dadin zangotrabaka ari direla, euskararen berreskurapena geldiarazteko UPNk asmatutako zonifikazioa betikotzearen aldekoak direla, Erriberan lanpostu publikoak eskuratzeko Lingua Navarrorumak ez duela baliorik, baina frantsesak, alemanak edo ingelesak bai, Merituen Dekretu berrian euskararen balioa errotik murriztu dutela eremu mistoan... Eta PSNko alkate eta kontseilarien jardun euskarafobo amorratua ere ahaztu du aipatzea. **Ulertu ez dudana** da zein mesede egiten digun agintari euskarafobo bati elkarrizketak euskal telebistako euskararen aldeko saio batean, inork ez badio bere politiken gaineko konturik eskatuko behintzat. Zeren eta, hizkuntz politika jarraitzen ez duenak pentsa baitezake Chivitek eta PSNk euskaltzale zuhurretik gehiago dutela beste edozerretik baino. Nago gabon hauetan badutela zer ospatu PSNko marketing arduradunek, musutruk.



Ernesto Leitza Urrestarazu
(Euskaltzaleen Foroko kidea)



María Chiviteri egindako elkarrizketaren fotograma bat. EITB



Sustraiak

Guraso Elkartea

“Ederra izan da gaztainaren inguruko dokumentala osatzea”

Larraitzarko ikastetxeko Sustraiak Guraso Elkarteko kide da Virginia Iragi, eta sortu berri duten dokumentalaren xehetasunak eman dizkigu elkarrizketa honetan. Izan ere, azken urtean gaztainaren inguruko lanketa egiten aritu dira elkartetik, eta ibilbideari bukaera emateko, dokumentala sortu dute. Urriaren 31n aurkeztu zuten Larraitzarren



Nondik nora sortu zitzaizuen gaztainondoen inguruko dokumentala egiteko ideia?

Beatriz Ihaben eta biok ari gara guraso elkartean, eta eskolarekin ere elkarlanean aritzen gara. Bururatu zitzaigun ekimen interesgarria izan zitekeela gaztainen inguruan pertsona helduen testigantzak eta bizi-penak jasotzea, eta horiek guztiekin bilketa bat egitea. Eta, zein modu hoberik bilketarako, dokumental bat egitea baino? Elkarrizketetarako bi grabaketa txanda egin genituen, eta bestelako irudi eta soinuak grabatzeko beste egun bat.

“ Ikaragarritzko garrantzia izan du gaztainak inguru hauetan ”

Norekin egin duzue dokumentala?

Sandra Urrea eta Elias Ribasekin egin dugu lan. Honetan aritzen dira beraiek, eta oso lan polita egin dute. Nik ez nuen batere ezagutzen

grabaketen mundu hori, baina oso interesgarria izan da: orain grabatu, orain itxoin pixka bat, errepikatu planoak baino mantsoago... ederra izan da, bai.

Zergatik zen garrantzitsua gaztainen inguruko bilketa egitea, zuen ustez?

Uste dugu garrantzitsua dela gaztainaren kultura mantentzea, hemen beti lotura handia egon baita. Bestetik, euskarari bultzada ematea ere garrantzitsua iruditzen zitzaigun, bertako euskara entzutea, testigantzak biltzea...



Zer kontatu dizuete elkarrizketatutako herritarrek?

Bere garaian inguru hauetan gaztainak ikaragarritzko garrantzia zuela kontatu digute. Izan ere, oinarritzko elikagaia ziren gaztainak, danbolina jarri eta gaztainak esnearekin afaltzen zituztela kontatu digute. Gaztaina soberan zegoen urteetan, berriz, zakuak astoan kargatu eta Irurtzunerara joaten omen ziren saltzera. Bertako ekonomian garrantzia zuen gaztainak.

Larraitzarko Zentro Zibikoan aurkeztu zenuten lana, zer moduzko erantzuna izan zuen?

Oso urduri geunden, ez baikenekien jendeari gustatuko ote zitzaion, baina oso erantzun ona izan du pelikulak, eta oso pozik gaude jendearen harrearekin. Larraitzarko Zentro Zibiko-ko aretoa ia goraino beterik zegoen. Hori ostiralean izan zen, eta Igandean Jauntsaratsen Gaztaina Feria zela aprobetxatuta, han ere bota genuen.

Aurkezpenera bertaratzerik izan ez zutenek, badute dokumentala ikusteko beste modurik?

Plataformaren batean zintzilikatzeko eta ikusgai jartzeko asmoa dugu, baina oraindik ez dugu zehaztu non. Egia da jendea galdezka ari zaigula, ea non ikus dezaketen... igoko dugu sarera, adi egon dadila jendea.

“ Erantzun oso ona izan du dokumentalak ”

Dokumentalaz ari gara, baina gaztainen inguruko lanketa ez da horretara mugatu, ezta?

Ez, ez, lanketa zabala egin dugu urte osoan zehar gaztainaren inguruan. Hainbat ekintza egin ditugu gai honi lotuta, esaterako, gaztainondoan inguruan ibiltzen diren hegaztien kantuak ezagutzeko ekimena egin genuen, txoriei eraztuna jartzeko beste irteera bat ere bai... 'fototran-



peo' bat ere egin genuen: gaztainondoan kamerak jarri genituen hor zer gertatzen den ikusteko, zein animalia ibiltzen diren... Bestetik, aurtengo literatur lehiaketako gaia ere gaztaina izan da, eta oso lan politak aurkeztu dira. Beraz, oso pozik gaude egindako lanarekin eta proiektuak izan duen erantzunarekin eta parte hartzearekin.

Sustraiak guraso elkartetik bultzatu duzue ekimena, baina eskolaren laguntza ere izan duzue?

Bai, hilabeteetan behin elkartzen gara guraso elkartekoak irakasle talde batekin, eta ideiak eta proiektu posibleak amankomunean jartzen ditugu. Hor sortzen dira garatu nahi ditugun proiektuen ideiak. Adibidez, gaztaina eta ipuinak lotzea proposatu genien irakasleei, eta gaztainak egiten dituen pertsona bat etorri zen ipuin musikatuak haur txikiei kontatzera.

Natura haur eta gatzetxoei hurbiltzea da proiektuaren helburu nagusia?

Hori da, bizi garen ingurune aberats hau aprobetxatzea eta eskolatik kanpoko ezagutza bultzatzea da helburua. Horretarako, familientzako ateraldia antolatu genuen Igoako gaztainondoetara, han Xabi Azpirotzek eta Laura Martinenak gaztainondoekin nola ari diren lanean azaldu ziguten...

Gaztainaren proiektuarekin bukatuta, baduzue bestelako ideiarik aurrera begira?

Tira, orain gustatuko litzaiguke beste familiaren bat sartzea guraso elkartera. Proiektu oso polita da, edozein gai landu daiteke, beti ikastetxearekin batera. Beraz, aprobetxatuko dugu tarte hau deialdia egiteko, ea jendea animatzen den!



Alicia Ziganda eta Amaia Arretxea, Los Tajudos del Norte rantxera taldeko eskualdeko ordezkariak

Odietako latasarra den eta Gaskueko Gure Ametsa etxean bizi den Alicia Ziganda aritzen da Los Tajudos del Norte musika taldean abeslari, eta Urritzolako Dorrea etxeko Amaia Arretxea, berriz, akordeoilari. Bi musikariek elkartu gara taldearen ibilbideaz eta mexikar musikarekiko haien loturaz hitz egiteko

Txulapain eskualdeko Beltzuntze herrikoak dira taldekide gehienak, baina gure eskualdeko bi ordezkari ere badira tartean, odietar bat eta ultzamar bat. “2012an sortu zen taldea, nahiko modu informalean, errondetan jotzen, eta hasiera batean taldekide gehienak Beltzuntze eta Txulapain ingurukoak ziren”, azaldu du Zigandak. Bera 2015ean batu zen taldera, modu oso uste-kabekoan. “Kinto bazkaria izan genuen Auzan, eta errugbi gaupasa zen egun horretan. Taldeak kontzertua jo zuen arratsaldean, eta ni eskenatokira igo nintzen abesti bat kantatzera”, gogoratu du Zigandak.

Nonbait, taldeari gustatu zitzaion nola abestu zuen, izan ere, hilabete geroago, Santurbeko erromerira agertu ziren taldekideak eta abeslari ofizial izatea proposatu zioten. “Horrela izan zen dena, bat-batekoa!”, dio barrez. Maiatzaren bukaeran izan bazen errugbi festa, ekainaren bukaeran Burgeteko kontzertuan parte hartu zuen lehengoz. Gaztetan jota talde batean parte hartu zuen Zigandak, baina urteak dira utzi zutela, beraz, aukera berri baten gisan hartu zuen rantxera taldearen proposamena. Gaur egun, musika taldean ez ezik, Ultzamako Amati abesbatzan ere abesten du.

Arretxeak urte batzuk beranduago egin zuen bat taldearekin, 2021ean. “Bederatzi urterekin hasi nintzen

“

Alicia Ziganda:

**Betiko abestien
bertsioak jotzen
ditugu batik bat,
baina kanta berriak
ere sartzen ditugu**

”

akordeoia jotzen Aralar Musika Eskolan, eta gerora lehengusu batekin erromeria kontzertuak ematen aritu nintzen inguruko zenbait herritan. Talde txikia zen, nahiko informala, baina gero utzi egin genuen eta akordeoia ere pixkanaka uzten ari nintzen...”, gogoratu du. Momentu horretan deitu zioten Los Tajudos del Norte taldetik, aurreko akordeoilariak utzi zuela eta hasi nahi ote zuen galdezka. “Betidanik gustatu izan zaizkit rantxerak,



Ezkerrean, Amaia Arretxea akordeoilaria, eta eskuinean, Alicia Ziganda abeslaria



“

Amaia Arretxea:
Inguruko
herri hauetan
rantxerekiko
zaletasun
handia dago

”

eta talde baten parte izatea bada akordeoiarekin segitzeko modu bat, beraz, gustura esan nuen baietz”, kontatu du. Horren aurretik, Puro Relajo taldearekin ere aritu zen tarte batez, talde horretako akordeoi-laria ordezkatzeko. “Hain ezagunak ez ziren garaian izan zen, dena den, orain esaten dut, hor egon nintzen!”, gogoratu du barrez.

Herri abeslariak eta herri dantzariak

Bertsioak jotzen dituzte Los Tajudos del Norte kideek, betiko abestiak eta berriagoak ere bai. “Abestiak bertsionatzen ditugu, korridoak, rantxerak, Rocio Durcal, Vicente Fernandez... normalki rantxera tipikoak jotzen ditugu, baina abesti berriagoak ere gehitu ditugu, azken aldian boladan jarri den ‘Mujer malvada’ eta antzekoak, adibidez”, dio Arretxeak. Erreferenteei buruz galdetuta, bi musikariek bat egin dute: Rocio Durcal da gehien gustatzen zaien musikarietako bat.

Taldeak ez du abestirik ezta diskorik grabatu, bi kideek nabarmen-tzen dutenez, zuzenekoetakoak dira beraiek. “Ez dugu deus grabatzerik pentsatu, uste dut oso plazakoak garela, ‘de andar por casa’ esaten dena, jendearekin kontaktuan egotekoak...”, adierazi dute. Herri txi-



Los Tajudos del Norte taldea, zuzeneko batean ▲

kietan jotzen dute normalean, batik bat udan, bestetanº: Ultzamaldean asko ibili dira, baina baita Lizarraldean, Erro inguruan, Otsagabian, Atarrabian... aurreko udan 40 bat kontzertu eman zituztela kalkulatu dute, ez da zenbaki makala!

Publikoari dagokionez, batik bat adineko jendea hurbiltzen dela diote, edo behintzat, horiek direla gehienbat dantzatzera animatzen direnak. Gazteek ere badute rantxerekiko zaletasunik, baina gehiago kostatzen omen zaie dantzan jartzea. “Badira dantza asko egiten duten herriak, beste batzuk gehiago dira begira egotekoak, edo abestekoak... egia da eskenatoki gaineen zaude-nean asko animatzen duela jendea dantzan ikusteak”, diote. Sorpresak ere eraman dituzte, esaterako, Esnotzen, Erro inguruan, harrituta gelditu ziren mundu guztiak, gazte nahiz adineko, egin zuelako dantza kontzertu osoan. “Jende oso gazteak egiten zuen dantza han, poztu ginen ordaindik zaletasuna bada-goela ikusita”, diote.

Rantxerekiko zaletasuna Nafarroan eta eskualdean

Gure eskualdean ere eman dituzte kontzertuak Los Tajudos del Norte musikariek, taldekideek nabarmendu dutenez. “Urritzolan jotzen dugu bestetan, eta egia esan, hitzordu kuttunetako bat dugu hori”, diote. Biak onartu dute txikitatik izan dutela rantxerekiko eta Mexikoko musikarekiko zaletasuna. Fenomeno xelebrea da Nafarroan eta gure inguruko eskualdeetan musika mota horrekin gertatzen dena. “Lehen esaten zen zaletasun horrek izan zezakeela loturarik Ameriketara lanera joan ziren horiekin, haiek ekartzen zutelako edo... baina bai, egia da harrigarria dela inguru hauetan dagoen zaletasuna, ni umea nintzenean ez zegoen besterik herriko bestetan eta errondetan!”, gogoratu du Arretxeak.

Sortu zenetik taldean aldaketa franko egon diren arren, 2023tik nahiko talde finkoa dela kontatu digute. Zazpi lagunek osatzen dute taldea gaur egun, eta Beltzuntzen entseatzten dute. “Aurrera begira ez dugu anbizio handiegirik, baina gustatuko litzaiguke orain arte bezala herriz herri jotzen segitzea”, amaitu dute.



Olentzerori gutunak uzten,
Santurben



Olentzero eta Maridomingiri ongiatorria Erason



Aizarbil mendira irteera



Orbela mendi taldearen irteera



Talo goxoak prestatu
zituzten mintzakideek



Dirdirak eta dardarak jaialdirako
Iker Uribe egindako mural ederra



Harrera beroa egin zioten
Atezko herritarrek



Kata, Xumai eta Olentzero
Oihanzabal eskolan



Basaburuko Olentzero eta Mari Domingi



Opariak banatzen



Odietako Olentzero, Anotzibarren



Amaia Elizagoien eta Iker Gorosterrazu bertsolariak
Ultzamaldekoko bertso eskolako haurrekin



Lacteos-Goshua taldea
Doneztebeko torneoan



‘Txondor plaza’, Txetxu Collado aizaroztarraren antzelana

Udalbiltzaren ‘Geuretik sortuak’ kultur sorkuntzarako beka jaso du Aizarozko Txetxu Colladok gidatzen duen Argimalutak konpainiak, eta txondorraren inguruko lana prestatzen ari da. Berriatuan egin du egonaldia aizaroztarrak, eta otsailean aurkeztuko du zirkoa eta antzerkia uztartuko dituen ikuskizuna. Lanaren nondik norakoak kontatu dizkigu elkarriketan

Noiz eta nolatan sortu zitzaizun txondorraren inguruko lan hau egiteko ideia?

Hogei urte pasatxu daramatzat antzerkiaren munduan, denbora guzti honetan besteek sortutako ekoizpenetan hartu dut parte, baina duela zenbait urte neronek sortutako istorioa kontatzeko grina piztu zitzaidan. Ikazkinen mundua oso erakargarria iruditu izan zait beti, Tasio pelikula inspirazio iturri izan

“ **Berriatuan
80 bat lagunek
hartu zuten parte
txondorra egiten,
harrera oso ona
izan genuen** ”

dut horretan, eta hori antzerkiarekin eta zirkuarekin lotu dut.

Zerk erakartzen zaitu txondorretik?

Orokorrean, aspaldiko ofizioek erakartzen naute, nolabait, eskuekin jorratzen diren lan horiek. Txondorgintza, gainera, mendian egiten da, egurrarekin, gertuko baliabideak erabilia... uste dut horrek guztiak erakarri nauela gai horretara.



Berriatuako txondorra pizten. Lea Artibaiko HITZA ▲



Kultur ondarea zabaltzeko aukera ematen du arteak?

Bai, noski, hori da proiektu honi ekiteko arrazoietako bat, desagertzeaz zegoela uste genuen ofizio bati omenaldia egiteko modu bat da. Dena dela, gaiaren inguruan ikerketa egiten hasi garenean konturatu gara oker geundela eta ofizioa ez dagoela desagertzeaz, Nafarroan hainbat herritan badagojendea txondorra egiten segitzen duena, Bilorian kasu, Lizarraldean. Han badago Miguel izeneko txondorgilea, sasoi guztian, udaberriatik udazkenera, ikatza egiten segitzen duena. Eta berdin Goizuetan, Antzinen, Eltzaburun... Bai, artea baliatu dezakegu kultur ondarea zabaltzeko eta ofizio horiei omenaldia egiteko, eta kasu honetan, gainera, artea da txondorra egiteko egurrik onena, beraz, lotura bikoitza du! (barreak).



Txetxu, txondorra pizten ▲

Sortze prozesuan benetazko txondorra egitea erabaki duzue, zergatik bide hori?

Hasteko, eta ikusita txondorgilearen unibertsoa konpartitu nahi genuela lanean, unibertso horren inguruko ezagutza ahalik eta sakonena jaso nahi izan dugu. Txondorgintzan esperientzia eta ezagutza duen jendearen bila hasi ginen, Lizarraldera jo genuen, Antzinen Karlosekin egon ginen, Eltzaburun beste Karlos batek duela hamar urte baino gehiagotik urtero txondorra egiten duela jakin genuen eta han izan ginen, Goizuetan ere bai... txondorra nola egiten den ikasi genuen, zer nolako bizipenak izaten dituzten, eta hori guztia ari da gure sorkuntza prozesua elikatzen. Eta, behin bilketa hori eginda, esan genuen: "Goazen guzti hau zuzenean bizitzera!". Horrela sortu zen txondorra benetan egiteko ideia, zuzenean gure eskuekin bizitzekoa.

Berriatuako txondorra, Egonarria saioan

ARGIAko Egonarria podcasteko kideak Berriatuan izan ziren Colladorekin, txondorra egiteko prozesua grabatzen. Eskerrak eman zizkien bertan aizaroztarrak laguntzaile izan zituen Goizuetako, Eltzaburuko eta Oñatiko kideei. Bideoa ikus dezakezue beheko QR kodean.



Eta, zer moduz joan zen?

Primeran atera zen. Beka honek eskatzen du Udalbiltzan dagoen herri batekin harreman berezia sortzea, guri Berriatua egokitu zitzagun. Hamabost eguneko egonaldia egin genuen han, espazio bat utzi ziguten antzezlanaz jorratzeko, baina, paraleloki, herriarekin hartu-emanen dinamikaren bat egin beharra genuen, eta orduan pentsatu genuen hango herritarrekin egitea txondorra, auzolanean. Hasieratik harrera oso ona izan du proposamenak, eta herritarren partetik sekulako erantzuna jaso dugu: 80 lagun inguru elkartu ginen, bai txondorraren prestaketetan eta baita piztuta egon zen 8-10 egunetan. Oso polita izan zen.

Orain, zeintzuk izanen dira hurrengo pausoak?

Antzerkiaren gidoia amaitzeaz dugu, eta, bestetik, antzerkia eta zirkoa izanen den heinean, zirko teknikak entseatzen eta probatzen ere ari gara. Ni izanen naiz antzezle bakarra, baina Eva Azpilikueta- ren zuzendaritzapean nabil, bera ari da dramaturgia eta gidoia jorratzen. Ia astero ari gara elkartzen, hemendik otsailera bitartean topera egonen gara: entseguak egiten, gauzak probatzen, gustuko duguna finkatzen eta bestea aldatzen... sorkuntza prozesuan bete-betean murgilduta gaude, eta laister hasiko gara gonbidatuekin entseguak eta publikoaren aurreko lehenbiziko probak egiten.

Estreinaldia, noiz eta non izanen da?

Iruñeko El Punto gunean otsailaren 14an egingen dugu aurrestreinaldia, eta estreinaldia, berriz, Berriatuan bertan izanen da otsailaren 21ean.



Don Emilio

Linzoain Linzoain, euskaltzalea

Etsenplu handia imoztarrentzat

Don Emilio Linzoain Linzoain, Eugiko **Aragon bordako** semea eta gero Iragiko **Atekoan** bizitutakoa, urte luzez Muskitzen izan dugu apez, ia-ia hil artio. Baina, Muskitzen bakarrik ez, Zarranzko Parrokia ere urte askoz berak ibili baitzuen. Eta 1979an Don Manuel Rekalde Etxarri hil zelarik, Oskozko parrokia ere hartu behar izan zuen

Don Emilio apez zintzoa eta apala zen, baina nortasun berezikoa eta bizkorrekoa itxura guzien kontra; bestalde, historia eta arte maitalea zen. Eta euskaltzale bizkorra. Horrela esan zidan behin (1) atzeritik euskara ikastera etorri diren jakintsuak hizpidera atera zirenean, **Schuchardt alemana, Willam A. Douglas ingelesa eta berrikiago gure denboretakoa zen Norbert**

Tauer txekiarra... eta horiei kontrapuntua jarritz hemengo euskaldun askok duten jarreraz:

-Desprezietzen dute, neri haaaa-rritzen dire; nik maten'tut eskerrak Jaungoikoari eta nere aite eta nere amari, izeba denei, osabei ere bai, euskeraz egin diretelako! Badakizu zer aberastasune den!...ni pozik nago, klaro. Neri iduritzen zaide gauzik zuzenena. Bi mile urte igual izain

dire egin zutela euskera...

Don Emiliok utzi digun bitxi polita

Parrokietako apez zirenek, eguneroko elizkizunez gain bazituzten beren eginbeharrak: hurrei doktrina erakutsi, egunero Brebiarioa errezatu... Eta beste gauza batzuen artean, zorrotz eraman behar izaten zuten liburuen kontua: Jaiotza, sendotza, ezkontza eta heriotzetako Liburuak, eta beste franko. Liburu



Bazkari batean, Don Emilio gaztea. Ezkerrean dagoena Jesus Eritze Intsausti da, Alkateneko fraidea, klaretarra, Panaman bertako hizkuntza baten gramatika apailatu zuena, eta erdian, Martieneko Manuel Garbisu Barberia



horietako bat **Matrikula liburua** deitzen dena zen. Matrikula liburuan, urtero, eliztar guzien zerrenda egiten zuten, izen-deiturak jarritz, bakoitzaren jaioteguna, ezkondua/ezkongabea zen eta inportantzia handia zuena, ea Pazkoz bete zuen. Azken hau izaten zen liburu hone-tako helburua, pazkoz betetzearen erregistroa. Guzi honi loturik dago **txartela**ren kontua.

Ez dugu kontatuko **txartel** famatuaren ateratzea zer zen, hori, irakurleok, zuen guraso edo aitatxi-amatxiei galde.

Kontua da, Don Emiliok bere historia zaletasunari men eginez, 1983ko zerrendan datu bat txertatu zigula ahal zuen bezala delako *Matrikula liburuan*: **¿Uskera badaki?** Edozeinek galdera horri erraz erantzunen lioke. Errazkeriaz egitea aise da, BAI edo EZ jarri eta aurrera. Baina historialari arduratsua baitzen, galdera honi, **¿Uskera badaki?** honi, xehe-xehea erantzun zion (1) Eta 104 oskoztarrak horrela ezaugarritu ditu gure hizkuntzaren ezaugarrien arioren:

1.-Ongi daki	43
2.-Badaki	16
3.-Franko daki	19
4.-Oztopoka daki	1
5.-Guti daki	4
6.-Ulertzen du	2
7.-Zerbait ulertzen du	1
8.-Ez daki	9

Eta gero, Don Emiliok zuhur jokatzuz, beste 9 lagunengana laukitxoak hutsik utzi ditu. Horietatik sei kanpoan bizi ziren nahiz Oskotzen erroldaturik egon. Eta gainerako hiruak, herrian bizi zirenak, honela banatzen ditu: heldu bat eta bi haur ttiki, bat jaio berria eta bestea urte batekoa. Eta, jakina, bi haur horiek ez zekiten hizketan. Ikasiko zuten? Don Emiliok, badaezpada, hutsik utzi ditu laukitxoak. Eta hirugarren horrek, helduak, garai hartan ulertuko zuen zerbait gutxienez, nire ustez.

Sailkatze horretako guziak batu eta 104 lagun ageri dira. Horiek ziren garai hartan Oskotzen.

Zein izan da geroa?

Dударик gabe, **ongi daki** horietako gehienak hil dira. Bai, hil dira **ongi daki** horietako 32 lagun eta 11 bakarrik bizi dira.

Eta **jakitetik jakitera** tartea baldin badago, zer tarte dago **jakitetik ongi jakitera**? Ongi dakitenen galtzeak izugarritzko galera dakar. Ikaragarria.

	¿Uskera badaki?
Oskoz	Franko daki
Oskoz	Franko daki
Pamplona	Eztaki
Pamplona	Franko daki
Pamplona	Franko daki

Oskozko Matrikula liburuko puxka ▲

MANTENTZE · LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

722 766 835

LIZASO · karikolaregoitz@gmail.com



Euskal Herri guzian 1960ko hamarkadan sortu zen pizkundeak zenbateko eragina izan ote zuen Oskotzen? Zenbatek ikasi dute geroztik? Hobeki esan, zenbatek egin dute gora? Esan nahi baita, koska batetik goragoko koska batera?

Eta zenbatek atzendu dute? Edo erori dira koska beheragoko batera?

Gora egin dutenak badira eta gutxi gora behera, aipatu bi haur horiez landa, biak ikasi baitute ongi, beste BEDERATZI dira gora egin dutenak, gaizki ez baditut kontatu. Ez da gutxi!

Eta zenbatek egin dute behera? Honetan duda gehiago dut, ez baitira zenbait Oskotzen bizi eta ez baitut hitz egin horiekin. Baina, badirela segur naiz.

Etorkizuna Oskotzen eta Euskal Herrian

Euskararen egoera larria da Oskotzen, oso larria. **Ongi dakite**-n gutxi dago. **Ez dakite**-n askotxo eta 1960ko sua itzalixe dugu. Euskal Herri guzian ere ez dugu hobera egin joan den 20 urtean. Sua piztu beharra dago eta orain da momentua. Hori da zabaltzen ari den mezua joan den bizpahiru urtetan. Orain edo inoiz ez! Iñaki lurrebaso legazpiarrak egin zuen doktore-tesia bikainaren ondoren begiak zabaltzen hasi gara. Eta aurten, tesi horren ondoren lurrebaso berak eta Garaikoitz Goikoetxea elduaindarrak tesi horren emaitza bezala idatzi duten **Esnatu ala hil –Euskararen oraina eta geroa, diagnostiko baten argitan** liburuak zabalkunde

ederra hartu du. Eginbeharrekoaren eginbeharraz.


Euskara krisian dago, eskola krisian dago, euskaraz ongi dakiten gutxi ateratzen baita, eta gure demografia ere krisian dago, haur gutxi jaiotzen da, eta kontu hau ere aurreko biak bezain larria dela esanen nuke. Dena dela, demografiaren krisia utz dezadan hurrengo baterako, eta bukatzeko, aipatu liburuan datozen lau eskaintzetatik, laugarrena txertatu nahi dut nik etorkizunaren aldarri bezala.

Eskerrak izango direnei, euskararen borrokara batuko diren belau-naldi berriei.



Txurdan

(1) Hil baino urte bakar batzuk lehenago grabatu nion kontutxo hau.



▲ Catálogo Monumental de Navarra. Hemen dugu Katalogo hori, zokoan ezin kabitu eta tomo bat gainean teiltatu eginez. Bederatzi tomo handi dira denetara. Nafarroako herri guzietako eliza, komentu eta ermita sailkatu eta katalogatu zituzte; lau historialarien lan nekazinari esker dugu. Lau autore horiez gain, beste laguntzaile batzuk ere ibili dira. Eta horietako bat gure Don Emilio izan dugu. Sakristietako aberastasunak xehe-xehe ikusi eta horietaz idatzi duena da. Nafarroako herri guzietara iritsi omen zen batera ezik, hori kontatu zidan niri. Xahartu artio aritu zen lanean Orreagan, eta dena bukatua utzi zuen.

Hiztegia

Nortasuna: carácter .

Hizpidea: tema de conversación.

Sendotza: confirmación. Sakramentu bat da.

Helburua: finalidad.

Pazkoak: pascuas.

Historialaria: historia aztertzen duena.

Arduratsua: cuidadoso.

Ezaugarritu: caracterizar.

Ariora: hemengo hitza dugu. Idatzian gehiago erabiltzen da arabera hitza.

Zuhurra: prudente. Gurean adiera honekin ez da erabiltzen.

Sailkatu: clasificar, ordenar.

Esnatu=Iratzarri: (hau ibiltzen dugu Nafarroan, i(r)atzarri).


Aldarri egin: clamar.

Belaunaldia: generación.

Alkozko

Erresidentziako pintada famatua

Ardo frexkotik



Gure alderdian egin den pintadarik handiena izanen da. Badirudi pintoreak, bi bazirela gutxienez; lehenak **AUTODETERMINAZIOA** idatziko zuen eta bigarrenak **DA PAKEA**. Bi, hiru eta lau gazte izanen ziren ekin-tza hau egin zutenak.

Zenbat urte ditu pintada honek? Gure gusturako askotxo, gehiegi.

Hortaz dago lausotua, zahartua.

Herri batek autodeterminazioa eskatu beharra du herri izaten segitu nahi badu. Hara zer jartzen duen *Euskaltzaindiaren hiztegian* autodeterminazioa definitzerakoan: *Herrialde bateko estatus politikoa bertako herritarrek erabakitzea*.

Guk, euskaldunok, erabaki nahi

dugu zer estatus politiko nahi dugun. Herri izaten segitu nahi dugu, Euskal Herria bizirik nahi dugu; hortaz, lanean segitu behar dugu, eta gure umeak, gure ilobak euskarari eta askatasun egarriz hazi behar ditugu.

Biba Euskal Herria bizirik! Euskal Herria bere buru! Biba Euskal Herria!



▲ Hara pintaketa honetan zer idatzi duen pintoreak: "No me mires así K tu hijo también se droga!!"

Goiti ikusi dugu aspaldiko pintaketa Ultzamaldean. Eta hemen pintaketa berri bat. Erabat diferentea. Lehenbizikoan gure etorkizunaz mintzatu ziren eta honetan autodeterminazioa eskatzen drogadiktoen arteko eztabaidara pasa da pintorearen BAT.

Pintaketetan atzera egin dugu, **GU**tik **NI**ra pasatu gara, euskaratik erdarara...

Nahi duenak nahi duena pentsa dezala, baina, hori bai, pentsa dezala!

 Txurdan



Urte berriarekin, etorriko dira eduki gehiago ikusi eta entzuteko!

Urtarrilarekin etorriko dira gehiago, baina momentuz, urte amierak amezti.eus-en utzi dizkigun elkarrizketa, kolaborazio eta albisteak dituzue hemen. Gogoratu eskualdeko agenda eguneratua ere baduzuela agerkarian eta aurreko Pulunpe aldizkarien PDFak ere

Txutxumutxu irratia- rekin elkarlana

Ekainaren 5ean jarri ziren berriz ere martxan Larraintzarko Ikastetxeko Txutxumutxu irratiko mikrofonoak. Garai berri honi hasiera emateko Esan Erran irratiarekin elkarlanean irratsaio berezia egin zuten, zuzenean, ikastetxetik. Bada, sei hilabete ondoren etorri

da bigarren kolaborazio bat eta abenduaren 5ean, euskararen eguna ospatzeko, beste irratsaio berezi bat egin zuten bi irratiek elkarlanean eta hemen duzue entzungai.

Entzun



Ihia, zia edo ixa

Eneko Iurramendik eta Mikel Lakastak egiten digute Badena eta Eztena atala Esan Erran irratiko Egun Ero irratsaioan. Aurten landare izenak aitzakia hartuta haien inguruko informazioa eskainiko digute eta Euskal Herriko

eta eskualdeko toponimiarekin lotu. Azkenekoan ihiari buruz hitz egin digute. Ezagutzen al duzue?

Entzun



Musika (gehiago), mais!

Ez dugu saio musikatu bakarra, dakizuen bezala. Ostiraletan Egun Ero Kantuz ere izaten dugu eta Asier Mateo etorri zaigu bere hamar kantaz osatutako zerren-

darekin. Sakatu QR kodigoa zuek ere ezagutu nahi baduzue.

Entzun





Disidentziak musikan: swinga eta emakumezkoen lehenengo Big Bandak

Oihana Fernandez Iturri abeslariak eta Muskizko kantu irakasleak egiten digun kolaborazio berria da. Bluesaren damak eta

rockaren aitzindariak izandako isildutako emakumeen ondoren, swingaren iraultzaileak eta emakumezko lehenengo orkestrak ekarri dizkigu hilabete honetan.

Entzun



Memoriaren txokoa: LGBTQ+ kolektiboa eta meatzariak

Duela 41 urte, 1984ko abenduaren 10ean, Britainia Handiko meatzarien greba ekonomikoki babesteko jaialdia antolatu zuen

Meatzarien Babeserako Gay eta Lesbianen elkarteak. Meatzariak greban ziarduten martxotik, Britainia Handiko grebarik handienera eta luzeenera; eta borroken arteko elkartasunaren adibide bihurtu zen LGBTQ+ mugimenduak antolatutako ekimena. Hura jaso genuen gure memoriaren txokoa.

Entzun



Elkarrizketak eta albisteak

Esan Erran irratiko kolaborazioak oso anitzak dira baina bertan dituzue ere eguneroko albisteei lotutako elkarrizketak. Azkenetako bat izan da Jone Gabari, Mintzakideak

programaren eskualdeko koordinatzaileari egin geniona.

Entzun



Eta Esan Erran irratiko edukiez gain, gogoratu azken berriak jasotzeko ere baduzuela gure webgunea. Baita agenda eguneratua izateko ere.

Egin klik!



Pablo Aldaz pilotari auzarra Nafarroako gazteen lau t'erdiko txapelkun

Denboraldi ederra egiten ari da Pablo Aldaz pilotari ultzamarra, horren adibide da abenduaren 3an Lekunberrin Guillermo Mazo Nafarroako Gazteen lau t'erdiko txapelketa irabazi izana. Ez da bere kategoriako txapelketa irabazten duen lehen aldia, izan ere, duela bi urte kadeteen mailako lau t'erdiko txapela ere eskuratu zuen

Guillermo Mazo txapelketako finala irabazi berri duzu, zer moduzko sentsazioarekin zaude?

Oso pozik nago, gustura txapelketan egin dudan jokoagatik eta entrenamenduetan ere eroso. Bai, oso oso pozik nago, bere garaian eskuetatik gaizki ibili bainintzen, baina orain sumatzen dut sendatuta daudela eta ongi nabilela.

Gazteen mailako lau t'erdikoan lehen txapela duzu, ezta?

Bai, gazteen mailakoa bai. Iaz finalerdietan galdu nuen 22-21, pena izan zen tanto bakarrera gelditu nintzelako. Aurtengoak, nolabait, arantzatxo hori ateratzeko balio izan du. Honen aurretik, duela bi urte, kadeteen kategorian lortu nuen lau t'erdiko txapela, Labrit pilotalekuan jokatu genuen finala orduan. Ez nago ziur, baina esan nuke kadeteen eta gazteen mailan, bietan lau t'erdikoa irabazi duen bakarretakoa naizela Nafarroan.

Lau t'erdian jokatzea ongi ematen zaizun seinale?

Tira, bai, ongi moldatzen naiz lau t'erdikoan, pilotari ez diot golpe handiegirik ematen eta ez dut asko atzeratzen, baina aurreko koadroetan jokatzen ongi moldatzen naiz.

Noiz hasi zinen pilotan, eta nondik nora?

Umetan hasi nintzen pilotan jokatzen,

aitarekin, bost bat urte nituenean. Auzako elizan eta frontoian aritzen ginen jolasten. Gero, sei urterekin Buruzgain pilota klubean sartu nintzen. Oso gaztetatin egon naiz pilotari lotua. Aita ere pilotazalea da, gustatzen zaio, txikitan berak ere jokatzen zuen.

Non eta nola entrenatzen duzu?

Larraitzarren Aritzen gara entrenatzen, Aitor Paternain dugu entrenatzaile. Pilotari asko ari gara Buruzgainen, eta hor elkartzeko garenon artean binaka jokatzen dugu. Lau t'erdikoa ere entrenatzen dugu, teknika konituak lantzen ditugu... denetik egiten dugu. Astearteetan eta ostegunetan elkartzeko gara.



Lau t'erdiko gazteen txapelketa irabazi du Aldazek

“Eskuetatik gaizki ibili nintzen, baina orain sumatzen dut sendatuta daudela eta ongi nabilela”

Ikasten ere ari zara, nola daramazu pilota eta ikasketak uztartzearena?

Bai, Iruñean ari naiz nekazaritza ikasketak egiten, eta tira, ikasketak ez zaizkit gehiegi gustatzen baina nahiko ongi ari naiz moldatzen. Behintzat gaintitzen ari naiz eta nota nahiko onak ateratzen ere bai, beraz, esanen nuke nahiko ongi daramadala bi gauzak uztartzea.

Aurrera begirako asmo edo erronkarik baduzu?

Orain Najeran dut lau t'erdiko beste txapelketa bat, finalerdietan nago eta ea zer moduz joaten den. Eta, Tolosan beste txapelketa batean ere ari naiz jokatzen bikoteka, Miguel Soroa memorialean. Andoaingo pilotari bat dut bikote, Beroz. Betidanik jokatu izan dugu elkarren kontra, ongi ezagutzen gara, eta orain bikoteka jokatzea egokitu zaigu. Ea horretan ere txapela lortzen dugun.



Pello Sala Elizondo (†), fraide zurietako misiolaria

Azken bi urte hauetan askotan iharduki dut Pello Sala Elizondorekin, Alkozko misiolariarekin, eta momentu atseginak pasatu ere bai. Bere aurrekoen etorkia eta historia idatzi nahi bizia zuen eta nik laguntza eskaini nion; eta, hortaz izan da gure harreman estua

Nolako nahigabea hartu dudan zuk alde egin izana zure azken lan hau bukatu gabe utziz eta zure ilobei eskaini gabe! Zure nahia bizia bete gabe!

Jendaurrean eta nonahi beti aurkezten ninduen bere familiakoa bezala eta herenaitona bera genuela zioen: Juan Simon Barrenetxe, Arraizko bentetako **Simorenakoa**.

Pello Sala, Alkozko **Guraxonean** sortu zen 1942ko urriaren 30ean, Martin Jose eta Rosarioren semea, alkoztarrak, lehena, **Apeztegiko maistartokian** sortua eta bigarre-na, **Martikonean**.

Izan ziren bederatzi senideren artean azken aurrena. Alkozko eskolan ibili zen eta, zioenez, zoriontsu izan zen eskolan eta herrian, adiskideekin jostatuz.

Bokazioz, hamabi urtetan Iruñeko seminaria joatea erabaki zuen, 1955ean. Bere ikasgela "Beti bizkor" zeritzan eta izenari izana gehitu zion Pellok.

Hamazazpi urtetan bere bizitzan beste jauzi bat egitea deliberatu zuen eta Logroñora joan zen **Fraide Zurieta**, Afrikara misiolari joateko erabaki irmoz.

Bere ikasketak Frantziako Alpeetan den Gap deitu hirian segitu zituen, ondoren Kanadara, Ottawara joateko. Jauzi handia izan omen zen hura, bizia ikusteko era berria, irekiagoa, beste ohitura batzuk, beste ideia batzuk...

1968ko ekainaren 16an apez ordenatu zuten Logroñon eta biharamunean eman zuen lehenbiziko meza Alkotzen, familiakoez eta herritarrez lagundua.

Bere misiolari bizitza gehiena Ruandan eta Kongon eman zuen, bietan ere izan ziren garai odoltsuak barne.

Italian, Mexikon eta Madrilan ere pasa zituen urte batzuk. Eta jubilatuta eta Iruñeko Fraide Zuriaren egoitzan bizi izan da urri honen 25ean hil zen artio.

Erran dezaket Pello bere misiolari lanaz harro eta zoriontsu izan dela. Eta, nahiz Alkotz urrun izan, beti bihotzean eraman ditu bere herria eta herritarrak.

Familiarenganako maitasuna erabatekoa: bete gurasoak, senideekin batera, beretzat oso inportanteak izan dira, bere pilareetako bat erlijio federekin batera.

Gizon apala, hiltuna, bere lanari emana eta jendearekiko errespetu gaitzekoa.

Pello, milesker nirekin izan duzun adiskidetasunarengatik eta bizitzaz erakutsi didazunagatik. Beti izanen zara nire oroimenean, Pello!



▲ Hemen dugu Pello Sala, adindua ia, misio-lekuan, jende gazteekin



Lourdes Iraizotz



Lanzko ihoteak

marraxtu

Lanzko ihoteak marraxtu dituzte Ana Galar ultzamarraren ikasleek

Lizasoko Ana Galar Ariztegi artista Biurdana institutuan plastika eta marrazki irakaslea da eta Lanzko ihoteak ilustratzen jarri ditu ikasleak, lehenengo hiruhilekoan. Basaburukoak, Imozkoak eta Ultzamakoak ditu Iruñeko, Donibane auzoan kokatzen den ikastetxean. Haiekin batera kanpoko askok ere Miel Otxinen historia ezagutzen zuten; baina bada klaseko lanaren bidez Lanzko besta ezagutu duenik ere. Egindako lana eta ikasitakoa Pulunperekin partekatu nahi izan dute

Biurdanako 20 ikasle dira Lanzko ihoteen inguruan lanean aritu direnak eta Ana Galar irakasle lizasoarrak azaldu digun bezala, sormena, behaketa eta adierazpen plastikoa lantzea izan da helburua. Baita talde-lana eta gure kulturaren inguruko interesa sustatzea ere: "Ikasleek gure inguruneiko ondarea ikasten dute, artearen bidez". Horretarako, bakarka hasi dira lanean, bakoitzak duen marrazketa-maila ikusteko eta kontuan hartzeko; ondoren, taldeka aritu dira, elkarri laguntzeko.

Erronka: xehetasunak jasotzea

Jantzien xehetasun txikiak ere jasotzea izan da lan honen erronka nagusia, ikasleek adierazi digutenez. Hori izan da zailena, baina polita izan dela eta pazientziarekin emaitza ona izan dutela aitortu digute. Erreportaje honetan ikusiko dituzue batzuk, eta hori baieztatzeko. Eta, nahiz eta bakoitzak bere ilustrazioa eta lana bakarka egin behar izan duen, zailtasunei aurre egiteko elkarri lagundu diote: "Ideiak partekatu ditugu, irudiak elkarrekin aztertu eta koloreak edo konposizioa jasotzeko elkarri lagundu diogu". Izan ere, jantzien xehetasun guztiak jasotzearekin batera, koloreen oreka ongi erabiltzea egin zaie zailena. Kontrara, berriz, pertsonaien jarrera adieraztea, errazena. Argaz-


kiak, bideoak eta liburuetak irudiak erabili dituzte oinarri. Baina irudimena ere asko erabili dutela aipatu digute: "Gehien gustatu zaiguna sormenerako izan dugun askatasuna eta pertsonaien adierazkortasuna izan dira. Gutxien, berriz, zenbait marrazkitan xehetasunak amaitzea edo borbiltzea kostatu zaigula". Materialari dagokionez, arkatzak, errotuladoreak eta koloretako margoak erabili dituzte, eta, zenbait kasutan collage txikiak eta testura gehitzeko materialak ere erabili dituzte.

Lan honetan asko lagundu die gaia-

ren gaineko interesa ere, oso erakargarria iruditu zaiela esan baitigute: "Gure inguruko bestak dira eta jantziak, maskarak, keinuak eta mugimendua lantzeko aukera eman digute".

Artearen bidez, ondarea babestu

Lanzko ihoteak gehienek ezagutzen zituzten, asko izan dira haietan eta beste asko noizbait entzun dute zerbait, gutxienez. Baina badira gaia guztiz berria zutenak eta ez direnak inoiz egon ere. Beraz, Nafarroako ondarean garrantzi handia duen bes-





“Gehien
gustatu zaiguna
sormenerako izan
dugun askatasuna
eta pertsonaien
adierazkortasuna
izan dira
”

ta ezagutu dute lan honen bitartez. Gertuko kulturaz eta tradizioei buruz gehiago ikasi dute ilustrazio-teknikak, koloreen erabilera eta konposizioa lantzen zuten bitartean. Eta, batez ere, Nafarroako ondare inmateria- laren garrantzia eta zenbait tradi- zio zaintzearen balioa ulertu dute, bestaren jatorria eta esanahia ikasi bitartean.

Istoriak duen misterioak harrapatu ditu gehien eta oso interesgarriak iru- ditu zaiela esan digute: “Pertsonaiek zerbait berezia dute, antzinatek dato- rrena eta erritualekin lotzen dena”.

Egindako marrazki eta ipuin ilustra- tuekin erakusketa bat eginen dute eta materiala beste proiektu batean ere erabiliko dute. Izan ere, Miel Otxinen panpina eginen dute, ikastetxeko iho- teetako festan erretzeko.

▲ Iseya Malumbres ikaslearen ilustrazioak



▲ Anaren ikasleak lanean

Proiektuan parte hartu duten ikasleak:


Naroa Alegria Ayarra, Enero Brun Sanz, Liher Bur- gos Altura, June Castillo Deito, Ibai Esevenri Tan- co, Julen Etxeberria Solano, Iratxe Goñi Marcos, Aitana Lerin Goyena, Iseya Malumbres Echarri, Iradi Martiarena Roldán, June Moreno Mata, Jon Ander Okiñena Sánchez, Ione Oreja Machiñena, Oier Recalde Iriarte, Unai Rodriguez Beraza, Aimar Urdangarín Perez eta Amaia Zelaia Nuñez.



Urte kultural berri on!

Urte berriari Kubako son erritmoan ekin genion, BUENAVISTA SOCIAL CLUB dokumental ospetsuarekin, eta espero dugu prelude bat izatea, urte kultural "movidito" baterako, jarduera askorekin: musika, antzerkia, liburuak, zinema...

Esan bezala, aurtengo egitaraua urtarrilaren 2an hasi zen Win Wendersen dokumental ospetsuarekin: **Buenavista social club**. 1996an, Ry Cooder Kubara joan zen album bat grabatzera Ibrahim Ferrerarekin eta Buena Vista Social Club diskoan kolaboratu zuten musikariekin (Kuban super aiton-amonak bezala ezagutzen direnak). Win Wenders zinema-zuzendariak estudioan ikusi zituen musikariak eta haien bizitzak arakatu zituen Habanan. Ondoren, Amsterdamen filmatu zuen lehenik, non taldeak bi kontzertu eman zituen, eta, azkenik, New Yorken, Carnegie Hall mitikoan egindako errezitaldi ikusgarrian.



Urtarrilaren 9an, ostirala, jarduera bat izango dugu bidaiari, mendizale eta naturazaleentzat, **Ettxauritik Perura**, Ander Uria eta Urko Zabala eskalatzaile gazteen eskutik. Hau da bidali diguten laburpena: "30 egun Peruko Mendikate Txurian eskalatzen. Helburu nagusiak: Puscanturpa Esten bide bat zabaltzea (Huayhuas mendilerroan) eta La Esfingen Cruz del Sur bidea errepikatzea. Hitzaldia diapositiba eta bideoekin lagunduko dugu".

Hitzordua 19:00etan izango da Larraintzarko Bentan.



Hilaren 14an txikienentzako (baina baita helduentzako ere) antzerkiarekin jarraituko dugu: **Untxi Txuria**, Permakultura lorka elkarteak ordezkatzen. Antzerki xume honen xedea baliabide naturalen kudeaketa txarrak biosferan dituen ondorioei buruz kontzientziaztea da eta gazteek ingurumenaren etorkizunean eragin positiboa izaten ahal dutela azaltzea. Adi ordutegiari, haurren-

tzako jardueretan ohikoa den bezala, pixka bat aurreratzen baitugu: 18:00etan Larraintzarko bentan.



Ostiralean, hilak 23, hitzaldi interesgarri bat berreskuratuko dugu, Berdintasun Zerbitzuaren eskutik, joan den hilabetearen elurragatik bertan behera geratu zena: **Bote-re-harreman berriak bikote gazte heterosexualetan**, Rut Iturbe Rodri-





gorekin. Saio honetan, gaur egun sareetan bikote-harremanei eta sexualitateari buruz aurki ditzakegun diskurtsoen aniztasuna aztertuko dugu, eta nola horietako batzuek aspaldiko diskurtsoak berrantolatzen dituzten, botere-harremanak eta indarkeria erotizatuz; baina

baita harreman berdinzaleagoak bilatzen dituztenak ere. Hitzordua, berriro, 19:00etan Larraintzarko Bentan (Gizarte Etxea).

Azkenik, urtarrilaren 30ean, ostirala, Pamplona Negra jaialdiarekin elkarlanean, liburutegian Jon Arretxe idazlearekin hitz egiteko aukera izango dugu "TOURÉ DETEKTIBEA. NOBELATIK TELEBISTARA: Touré, Bilboko San Franzisko auzoan bizi den detektibe afrikarra, Jon Arretxe idazlearen pertsonaiarik ezagunena da. Egi-leak Touréren ibilbidea nola izan den kontatuko digu, eleberrietatik hasi eta telesaileraino. Pamplona Negraren laguntzarekin antolatu dugu ekimena.

Horrez gain, hilaren 12tik aurrera EMAKUMEA ETA MEMORIA NAFARROAN (IÑAKI PORTO) argazki erakusketaz gozatu ahal izango



dugu. 1936ko kolpe militarren ondorioak jasan zituzten emakumeen memoria berreskuratu nahi duen proiektua da. Iñaki Porto argazkilariak egindako erretratuek interpelatzeko gaituzte. Nafarroako Gobernuako Memoriaren eta Bizikidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren laguntzarekin antolatua.

 Patxi Irurzun

Eta gainera zinema eta literatura

Eta, bai, gainera, **Zinema neguan** zikloak jarraitzen du, igandero zinemako nobedade nabarmenetako batzuk eskaintzen jarraituko dugu. Gogora dezagun orain arte *Sirat*, *Karmele*, *Maspalomas*... bezalako pelikulak ikusi ahal izan ditugula eta zinemaren festak *Los aitas* edo *Jone batzuetan* bezalako beste batzuekin jarraituko duela... Astero kontsultatu dezakezue karteldegia Info Ultzaman, udalaren webgunean edo liburutegiko sare sozialetan.

Azkenik, txikientzako bi gomendio: Pintto txakurtxo musikalenaren bi abentura berri ekarri ditugu liburutegira. Haurrak reggae eta disko musikarekin ohitzeko soinuak dituzten bi liburu berri:

Pintto eta reggae musika: Pinttok izugarri maite du reggae musika! Bere gitarra soinean hartuta, Kingstonera abiatu da, Jamaikara. Han, gitarra jo, abestu eta dantzatu egin du, ska, rocksteady eta dub estiloen erritmoan! Eta kontzertu batean ere hartuko du parte... Paregabea, gure Pintto!

Pintto eta disko musika: Pinttok disko musikako dantza-lehiaketa batean parte hartu behar du New Yorken. Erritmo azkarrak eta janzkera zoroak: ziurtatuta daukazu dantatzeko giro bikaina! Ezagutu Pinttoekin disko musikaren erritmo zirragarriak. Irakurtzeko istorio bat eta 16 doinu entzungai. Sakatu ikonoen gainean eta entzun disko musika.





2025eko azaroa

2025eko azaroan gure alderdian izan ziren jaiotza, ezkontza eta heriotzak:

Jaiotzak:

Azaroan ez dugu sortzerik izan.

Ezkontzak:

Ez genekien baina urrian bai izan zela ezkontza bat.
Imanol Olague Barberena, Lizasoko **Eskoletxekoa** eta Zuriñe Txokarro de la Fuente Burlatakoa, urriaren 11an ezkondu ziren.
Mila-mila zorion ezkonberrientzat.



Heriotzak:

ANUE

Aritzu

Maria Oronoz Ibarra, Gorrontzeneko etxekoandrea, azaroaren 2an hil zen 92 urtetan.



▲ Maria Oronoz

BASABURUA

Jauntsarats

Benita Basturain Alberro, **Txokolate-roren** etxeko etxekoandrea, azaroaren lehenean hil zen 101 urtetan (Gerendiain-goa zaharretxean zen aspaldiko urteetan).



▲ Benita Basturain

LANTZ

Pedro Ziga Irurita, **Joankoneko** nagusia, azaroaren 28an hil zen 87 urtetan.



▲ Pedro Ziga

ULTZAMA

Alkotz

Maritxu Goienaga Villabona, **Argiñeneko** alaba, azaroaren 30ean hil zen.



▲ Maritxu Goienaga

“ Beti izanen zaituztegu gogoan ”



Ametzaren txokoa

Egin zaitez bazkide!

Ametza Kultur Elkarteko **bazkide izatera** animatu nahi zaituztegu urte hasiera honetan. Horretarako, gure helbidera idatzi behar duzue, ametzake@gmail.com, datu hauek emanez:

-Izen-abizenak:

-Helbide elektronikoa:

-Helbidea, herria eta posta kodea:

-NAN zenbakia:

-Telefono zenbakia:

-20 digituko banku-kontua:

Urtean 50 euroko kuota bakarra izaten da, ekainean pasatzen duguna. Gainera, gure elkarte Nafarroako Gobernuaren mezenasgo legearen barne dagoenez, errenta aitortenean ekarpenaren %80 arte itzultzen dute, alegia, 50 eurotik 40.

Bazkideen laguntzaren beharrean dago gure elkarte, antolakuntzari begira eta ekimen berriak eta betikoak aurrera eramateko. Animo, eta eskerrik asko!

ametzake@gmail.com



GOTELET-A
KENTZEA

FATXADAK
ZAHARBERRITZEA

IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)

DAVID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

KALITATEA
ETA
GARBITASUNA

AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



2025eko Zozketa mundiala

Sarien zerrenda
Lista de premios



x3

Asteburuko bidaiak 2
lagunentzat

Estancias de fines de
semana para 2 personas



x3

Elgorriagako bainu etxean
asteburuko egonaldiak

Estancia de fin de semana en
el Balneario de Elgorriaga



x2

Landetxetan
egonaldiak

Estancias en
Casas Rurales



x 20

Bazkari edo afari bikoitz
(inguruko ostatuetan)

Comidas o cenas para dos
(en las posadas locales)



x10

Txerri gizen

Cerdos gordos



x10

Axuri eder

Hermosos corderos

8 Esneki sorta / 8 packs lácteos

30 Saskitto / 30 Saskitto

25 gazta / 25 quesos

Eta... beste anitz sari / y... un montón de regalos más

**Saridunen
zerrenda
amezti.eus-en
Zorionak!**